



## ❖ KRONIKA - 10 URTE Larre-Gain sagardotegiko ekitaldirako sarrerak salgai

Kronikaren 10garren urteurrena dela eta, ekitaldia izango da martxoaren 12an, ostirala, Larre-Gain sagardotegian. Esne Beltza talde ereñotzuarak emanaldia eskainiko du, *Esne Zopak*, eta bertsolariak ere izango dira bertan. Sarrerak salgai daude 35 euroan: Larre-Gain, Aralar, Kixkal, Oindi eta Kronikan. ||

## Izokinak Urumean, itsasora bidean

Foru Aldundiak markatutako 2.500 izokin askatu zituen atzo Urumean. Urtero 20.000 ale askatzen ditu Aldundiak Urumean, «espezia indartu eta berreskuratzeko».

FORU Aldundiak urtero egin bezala, izokin gazteak askatu zituen atzo Urumea ibaian. 2.500 askatu zituen guztira. Izokin gazte horiek mikromarken bitartez markatu dituzte beranduago identifikatu ahal izateko. Aldundiak azaldutakoaren arabera, ibaiaren egoera zein den ezagutzeko aukera izaten da, izokinak oso egokiak baitira horretarako. «Izan ere, izokinaren ugaltze zikloa betetzeko, hau da, bizirauteko, ibaiak baldintza onetan egon behar dute; ur garbiarekin eta ongi zaindutako ubide eta ibaiertekin».

Urumean ez ezik, Oria ibaian ere askatzen ditu izokinak Aldundiak, eta egun hauetan, 5.500 gehiago askatzen dira bi ibaietan.

«Birzabaltzea eraginkorra» Rafael Uribarren Landa Ingurunearen Garapenerako diputatuak askatu zituen atzo izokinak Urumean, eta azaldu zuen, Urumea ibaira itzultzen diren ale kopurua oso egokia dela eta zabaltzea eraginkorra dela, «urteen arabera askatu diren 1.000



Rafael Uribarren diputatua izokinak askatzen atzo, Urumean.

aleko 2-5 izokin itzuli baitira». Beste datu bat ere aipatu zuen, hau da, Urumea eta Oria ibaietan kontrolatu diren aleetatik %30 bat izokin markatuak direla. «Horrek esan nahi du Departamenduari aurreko urteetan askatutakoak direla».

1993tik, urtero 20.000 ale Landa Garapenerako Departamendua 1993an hasi zen izokina Urumean zabaltzen eta urteko 20.000 ale askatzen ditu populazio naturala indartzeko eta espezia berreskuratzeko. Otsailetik martxora izokin gazteak, 12cm-koak askatzen ditu, eta maiatzetik ekainera, 5 cm-koak.

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako departamentua, beste lurralde batzuekin batera, Iberiar Penintsulako izokin-ibaien atlasa egiten ari da, Kantabriako administrazioarekin batera. «Horrek aukera emango du izokin-ibaien ezaugarrien berri izateko eta ibai iberiarretan dabilzan izokin populazioak ezagutzeko, Gipuzkoako ibaietan barne» azaldu du. ||

## ❖ UDALA

### Mugikortasun plana erakusgai dago Biterin

Hernaniko Mugikortasun Plana erakusgai dago Biterin, martxoaren 8ra arte. Bertan ezagutu daitezke planak biltzen dituen honako gaiak: oinezkoen guneak, bidegorriak, autobus-geltokiak, maiztasunak, aparkalekuak, eta abar. ||

## ❖ GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA

### Hernaniko azken atxilotuen tortura salaketak aztergai

Giza Eskubideen Batzardea bilduko da gaur, 18:00etan, Udaletxeko Areto Nagusian (2. solairua). Hizketagai izango dute Hernaniko azken atxilotuen tortura salaketak. ||

## ❖ ZINE KLUBA

### 'Yo tambien' gaur ikusgai Biterin

Zine klubaren barruan, *Yo tambien* (2009) pelikula izango da ikusgai gaur, Biterin, gaueko 21:30etan. Alvaro Pastor eta Antonio Naharrok zuzendutako pelikula honek bi Goya ditu: emakumezko aktore onena (Lola Dueñas) eta abestia. Donostiako Zinemaldian ere bi aktore nagusiek saria irabazi zuten: Pablo Pinedak eta Lola Dueñasek. ||

## Guardia Zibilak 2 zulo aurkitu ditu Oindin, Europa Press agentziak zabaldu duenez

Europa Pressek dioenez, ETaren bi zulo dira, eta bertan dirua eta lehegailuak egiteko materiala zeuden. Agentziaren esanetan, Gorbeian beste hiru zulo aurkitu dituzte.

GUARDIA Zibilak ETaren bi zulo aurkitu ditu Oindi mendian, Hernani inguruan, atzo Europa Press agentziak kalera ratu zuenez. Dirua, lehegailuak egiteko 5 kilo inguru ma-

terial, soka detonantea eta detonagailuak aurkitu dituzte bi zulo horietan, Europa Pressen arabera. Horrez gain, Gorbeia mendian ere beste 3 zulo aurkitu dituztela jakinarazi dute.

Horietatik bi hutsik zeuden, eta bestean 170 kilo material aurkitu dituzte, lehegailuak egiteko.

Eguerdian egin zituen miaketa horiek Guardia Zibi-

lak, eta Europa Pressen arabera, Ibai Beobide bertan zela egin zituzten miaketak. Ibai Beobide joan den otsailaren 13an atxilotu zuten, Asteasu eta Villabona artean. ||

**BASERRIKO SAGARDOA**

**GOIKO LASTOLA SAGARDOTEGIA**

✓ Ostegunetik igandera irekita  
✓ Asteburuan eguerdian ere zabalik

Sagardo naturala  
% 100 bertako sagarra

943 55 32 72 - 620 78 35 29

Ereñotzu auzoa - Hernani

**tripontzi taberna**

Egunero  
Menuak

8,50 €

Kardaberaz, 11    tf: 943555724

**OIALUME ZAR SAGARDOTEGIA**

www.oialumezar.com  
943 55 29 38

Mikel Arozamena bidea, 16  
20.115 ASTIGARRAGA

**TELEFONAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103  
● **FARMAZIAK** ● **Egunez**: **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauetz**: **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

**EGURALDIA**  
**GAUR** Hego haizeak joko du gaur, bizi xamar, eta eguraldi nahasia izango dugu. Goizean eguzkia ikusiko dugu; arratsaldean lainoak eta euria nagusi. Min.12° / Max.19°

**BIHAR** Bihar goizean goiz egin dezake euri pittin bat. Gainerakoan eguzkia nagusi izango da, baina freskatu egingo du, mendebalako joko duelako. Min.7° / Max. 14°

## ❖ UDALA

# Presoen Batzordeak jarraitu egingo du Hernaniko Udalean

Estatuko Abokatuak Presoen Batzordea kentzeko eskatu zuen, eta Donostiako Epaitegiak atzera bota du Estatuko Abokatuaren eskaria.

DONOSTIAKO Epaitegiak otsailaren 18an atera zuen sententzian, atzera bota du Estatuko Abokatuak egindako eskaria edo helegitea. Helegite horretan, Estatuko Abokatuak eskatzen du Hernaniko Presoen Batzorde Informatiboa kentzeko. Estatuko Abokatuak hiru argumentu nagusi jarri zituen helegite horretan, Presoen Batzordearen aurka, eta Donostiako abokatuak hiru argumentuak atzera bota ditu sententzian.

Erabakia ez da firma eta

bere aurka apelazio helegitea jartzeko aukera badago Donostiako epaitegian bertan.

### Hiru argumentu nagusi bota ditu atzera Epaileak

2007ko uztailaren 12an onartu zen Hernaniko Udaleko Plenoan Presoen Batzorde Informatiboa sortzea. Bere zeregina da, preso politiko eta sozialen inguruko informazioa biltzea eta ematea.

Estatu espainiarreko abokatutzak hiru argumentu nagusi aurkeztu zituen batzordea sortzea irregularrak

zela arrazoitzeko, eta helegitea aurkeztu zuen pleno hartan onartutako erabakia baliogabetzeko:

1)Aspektu formal batzuk aipatu zituen. 2) Neutralitate eta objetibitate printzipioak urratzen zituela batzorde horrek. 3) Berdintasun printzipioa urratzen zuela.

Maria Aranzazu Aguinaga Donostiako epaileak ez du irregulartasunik aurkitu hiru puntu horietan, eta Presoen Batzordea erabat legala dela iritzi dio, hilaren 18an eman dako sententzian. ||

## 👁️ Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

### Eskerrik asko, Usurbilgo herria

Gutun honekin Hernanin Zero Zabor taldeko emakume eta gizonok eskerrak eman nahi dizkizuegu Usurbilgo herritarroi. Bi urteotan ia hutsetik abiatuta martxan jarri duzue hondakinak kudeatzeko modu berria. Europan diren ereduak ikusi, leku asko bisitatu, asko eztabaidatu eta Atez Ateko sistema abiatu zenuten. Martxan jarri eta denbora gutxian oso emaitza onak lortzea posible dela erakutsi duzue. Usurbildarrok bide berria ireki diguzue Gipuzkoako eta Euskal Herriko jendeoi.

Lana fin egin behar izan duzue Usurbilen, polemikak izan direla badakigu (ez Hernanin orain ditugunak baino txikiagoak), bidean gauza bat baino gehiago aldatu beharko zenuten... baina lanarekin, el-

karrizketarekin eta pazientziarekin, emaitzak hor daude. Gero, atek ireki dizkiguzue Atez Atekoa ezagutzera Euskal Herri osotik hurbildu garen gutxioi. Hori gutxi balitz, sistema martxan jarri eta urtebetera, erreferenduma egingo duzue. Aspaldi honetan nork egin du horren erdia Euskal Herrian?

Usurbilek sistema berria antolatu behar izan du goragoko instituzioen laguntza gutxirekin. Aldiz, Usurbilgo udaleko agintariak hilabeteotan esku zabala erakutsi dute, bai udaleko alderdien artean akordioetara iristeko eta bai Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Hondakinen Kontsultazioari proposamenak eginez. Azken, joan den astean Xabier Mikel Errekondo alkateak egindako eskaintza: Zubietako Errauste Plantaren proiektuarentzako 6 urteko moratoria.

Guk bat egiten dugu moratoria proposamen horrekin. Eta ausarta litzateke Aldundiaren aldetik eskaintza hori onartzea, Gipuzkoa jasangarriago baterantz egiteko.

Usurbilgo herria: jakin ezazue Gipuzkoako herritar asko zuekin gaudela. Osasunarentzako, klimarentzako eta ingurumenarentzako kaltegarria den Errausketari uko egiteaz gain alternatiba on bat badela demostratu duzue. Maiatzean Atez Atekoa martxan jarriko da Hernanin eta Oizartzen. Eta laster etorriko dira gehiago bide beretik. Egun batean gu bezala eskertuta edukiko dituzue hilabeteotan zuen kontrako kanpainen jardun direneta-ko asko eta haien seme-alabak ere. Mila esker, Usurbilgo herria.

Karmele Agirre Aldabaldetretu,  
Hernanin Zero Zabor.

## ❖ CHILLIDA-LEKU - 10garren urteurrena

### Argazki erakusketa izango da ikusgai gaurtik aurrera, Zabalaga baserriaren berreraikuntzari buruz

Chillida Leku museoaren 10garren urteurrena ospatzeko, lehenengo ekitaldia aurkeztuko dute gaur arratsaldeko 19:30etan. Argazki erakusketa bat izango da, *Zabalaga, poesia y construcción* izenekoak. Zabalaga baserriaren berreraikuntzari buruzkoa da. Argazkiak Giuliano Mezzacasak (Italia, 1938) ateratakoak dira. Gaurko ekitaldian, gainera, lagoba Fanlo biolontxelo-jotzaile donostiarrek emanaldia eskainiko du. ||

## Atez ateko zalantzak argitzen

Erabilitako metxeroak nora bota behar dira?

Errefusera.

Bidali zure galdera helbide honetara: [info@hernaniatezate.net](mailto:info@hernaniatezate.net)  
Galde-erantzun guztiak webgunean: [www.hernaniatezate.net](http://www.hernaniatezate.net)



## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

**Pisua salgai Karabelen.** 60m2, 2 logela, sala, sukaldia eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.

**Pianoa salgai.** Yamaha U1F modelo, bigarren eskukoa. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.

**ETXEO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailera. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

**Argia zentroa.** Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebra- la, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2), 943 55 76 76

**Zure arazo eta blokeo pertsonalekin** lagunduko zaitut. Bide hauek erabiliz: Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach... (Alicia C.C.). Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia, ... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

## 10. urteurrena HERNANIKO KRONIKA

**Martxoaren 12an  
Ilunabarreko 20:00etan  
Larre-Gain Sagardotegian**



Hernanik  
kronika



**IRAGULIO PANTTALONE**

**AFARIA (sagardotegiko menua)  
BERTSOLARIAK  
ESNE BELTZA-ren ESNE ZOPAK**

**TXARTELAK 35'00€**

SALGAI ARALAR TABERNAN, OINDI TABERNAN,  
KIXKAL-en, LARRE-GAIN SAGARDOTEGIAN eta  
HERNANIKO KRONIKAN (Larramendi 11)

**FAGOLLAGA**  
RESTAURANTE  
J A T E T X E A

Ereñozu Auzoa, 68 - 69  
20120 HERNANI  
943 550 031  
[fagollaga@fagollaga.com](mailto:fagollaga@fagollaga.com)  
[www.fagollaga.com](http://www.fagollaga.com)

**AFARI BEREZIAK:**

3 plater erdi  
postrea  
edaria  
kafea

**30'00€**

**OSTEGUN, OSTIRAL  
ETA LARUNBAT GAUETAN.**